

"BEATRIZ GALINDO" DOKTORATU ONDOKO **DEIALDIA (MU) 2022** **DEIALDIAREN LABURPENA**

Diru laguntzen ezaugarriak:

Diru laguntza hauen xedea da karrera profesionalaren zati handi bat atzerrian egin duen talentu ikertzailea erakartzea.

Ehun laguntzatarako deialdia egin da eta unibertsitate publikoak bakarrik izan daitezke horien onuradunak. Deialdiak bi modolatitate bereizten ditu:

- **Senior modalitatea:** Gutxienez zazpi urteko esperientzia egiaztatua izatea atzerrian irakaskuntzan eta ikerketan, doktore titulua jasotzeaz geroztik.
- **Junior modalitatea:** Gutxienez zazpi urteko esperientzia egiaztatua izatea atzerrian irakaskuntzan eta ikerketan, doktore titulua jasotzeaz geroztik.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23. artikulua arabera formalizatuko dira (itzal handiko ikertzaileak) **eta 4 urteko iraupena izango dute.**

Kontratuaren xedea irakaskuntza eta ikerketa jarduerak egitea izango da.

Deialdiaren tramitazioa:

Deialdia hainbat fasetan egituratu da:

UPV/EHUko BARNE FASEA:

UPV/EHUk gehienez 5 eskari aurkez ditzake deialdi honetan plazak eman dakizkion. UPV/EHUko ikertalde aitortu, unibertsitate institutu eta nortasun juridikorik gabeko entitateek aurkezten dituzten interes adierazpenetatik Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) egiten duen hautaketan oinarrituta prestatuko da eskarien azken proposamena.

"Adierazpenak" nola aurkeztu jakiteko, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunera jo eta "Interes adierazpenak aurkezteko jarraibideak" agirian kontsulta daiteke.

"Adierazpenak" aurkezteko epea 2022ko uztailaren 18an amaituko da. IGBBk ebaluatuko ditu aurkeztutako "Adierazpenak" eta haietatik 5 hautatuko ditu.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabakiaren berri emango die haien "Adierazpenak" aukeratuak izan diren ikertzaile nagusiei, eskariko atal guztiak bete ditzaten eta, hala, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskaria aurkez dezan. **Inprimakiak osatzeko epea 2022ko uztailaren 26ko 12:00etan amaituko da.**

1. FASEA: PLAZEN EBALUAZIOA

Unibertsitateen idazkari nagusiak izendatutako nazioarteko adituek ebaluatuko dituzte unibertsitateek aurkeztutako plaza eskariak. Fase honetan, eskari horiek onartu edo ukatu daitezke.

2. FASEA: HAUTAGAIEN EBALUAZIOA

Behin plazak unibertsitateari eman ondoren, unibertsitateak berak argitaratuko du plazak betetzeko deialdia. Deialdi honetan nahi duten hautagai guztiek esku har dezakete. Prozedura honi buruzko jarraibideak Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko dira fase honetako eskariak aurkezteko epea hasten denean.

Unibertsitateen idazkari nagusiak izendatutako nazioarteko adituek ebaluatuko dituzte – deialdiak ezarri bezala– unibertsitateek aurkeztutako plaza eskariak. Ebaluazioa amaitutakoan, adituek unibertsitateari proposatuko dizkiote emandako plaza betetzeko hautagai bat eta ordezkoen zerrenda bat.

Ematea argitaratu ondoren, kofinantziazioan parte hartzeko konpromisoa hartu dutenek, hau da, ikertalde aitortuek (Eusko Jaurlaritzaren edo UPV/EHUren deialdiak), UPV/EHUko unibertsitate institutuek edo nortasunik gabeko entitateek ezin izango diote uko egin ebaluaziorako adituek hautatutako pertsona hartzeari, ezta horren ordezkari beste pertsona bat proposatu ere.

Plazak hutsik ere gera daitezke, ezein ikertzailek ez duelako eskaririk aurkeztu edo eskaria aurkeztu dutenek ez dutelako lortu deialdian eskatutako gutxieneko nota.

Harremanetarako helbidea:

convocatorias.dgi@ehu.eus

Informazio gehiago:

<https://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano/catalogo/profesorado/profesorado-universitario/becas-ayudas/movilidad/beatriz-galindo.html>